


# MUSKIZ ALDIZKARIA

/ 07 aldizkaria  
/ 2013ko uztaila



~~~~~  
*Onartu egin  
da 2013ko  
aurrekontua,  
eta iazkoa baino  
handiagoa  
izango da*

*/3. orrialdea*

~~~~~  
*Baliabide  
gutxien dituzten  
kolektiboentzako  
laguntzak*

*/2. orrialdea*

~~~~~  
*Muskiz Done  
Jakue Bideko  
etapa gisa  
sustatu dute*

*/4. orrialdea*

~~~~~  
*Zarataren  
kontrako  
Ekintza Plana  
hasten da*

*/5. orrialdea*

~~~~~  
*Oihartzuna  
abesbatza  
berritu nahian  
dago*

*/6. orrialdea*

## Editoriala

### ***Kudeaketa-eredu berrietara egokitzen ari gara***

Egungo testuinguru sozioekonomikoak baliabideen kudeaketan irudimena erabiltzera bultzatzen gaitu denok (familiak, erakundeak, elkarteak, etab.). Ildo horretan, jarduteko aldagai bi baino ez dauzkagu: diru-sarrerak eta gastuak.

Lehen atalari dagokionez, diru-sarreraren iturriak areagotu ditugu Muskizko Udalean, baina auzokideek zama erantsirik ordaindu gabe. OHZ (Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga) berrikusi da, erroldan ez zeuden erai-kinei alta emateko; horren bitartez, 60.000 euro bilduko dira urtean, eta azken 4 urteetan bildu ez den dirua berreskuratuko da. Era berean, JEZ (Jarduera Ekonomikoen gaineko Zerga) tasa igo egin da, maximora heltzeko konpromisoarekin; horrek 70.000 euroko aparteko diru-sarrerak emango dizkigu. Neurri horrek, haatik, ez dio inolako zama erantsirik ekarriko saltoki txikiari.

Gastuen atalean, aurrezten saiatzen ari da Muskizko Udala. Batetik, aseguru kontratuak bateratzeak 30.000 euro aurrezteka ekarri du, urtean. Beste alde batetik, 12.000 euro aurreztuko ditugu, galderen eta igogailuen mantentzean eta erregaien horniduran. Halaber, iragarkietako eta protokolo partidak urritu egin ditugu %20 an, aurreko urteen aldean. Era berean, dagoeneko planifikatutako inbertsioak eginez, argiztapen publikoko kontsumoak %30-40 murriztuko direla uste dugu.

Gobernu taldeak herritarrei ematen zaizkien zerbitzuen kalitatea hobetu nahi ditu, eta, ahal den neurrian, murrizketak egin. Aipatzekoa da Muskizek, gainerrako udalerrien antzean, zuzendu beharreko aurrekontu-gorabeherak dituela, baina saneatutako diruzaintza dauka, eta, ondorioz, inbertsio berriak planifikatu ahal izango ditugu, epe laburrera zein ertainera.

**Borja Liaño Abarrategi**  
Muskizko alkatea



## ***Tokiko Agenda 21eko Ekintza Plana onartu da***

**U**dalbatzak Tokiko Agenda 21eko Ekintza Plana onartu du datozen zortzi urteetarako, eta jarduteko bost lerro estrategikoak ezarri ditu, ekonomia, gizarte eta ingurumen kudeaketari dagokionez. Plana egiteko orduan, espezializatutako hainbat enpresak hartu dute parte, bai eta udal teknikariek, udal gobernu taldeak, oposizioak eta auzoko elkarteek ere.

2013-2010 Ekintza Plana Muskizko gizarte, ekonomia eta ingurumen kudeaketan jarraitu beharreko estrategia definitzen duen dokumentua da, iraunkortasuna aintzat hartuz. Udal arduradunek programa irekitzat jo dute honako hau, etorkizunari begira planteatutako jarduera guztiak izaera dina-

miko eta biziarekin garatzen baitira; izan ere, jarduera guztiak aldatu egin daitezke. Planak lerro estrategikoak ditu oinarri eta, horiek, aldi berean, udalerrria hobetzeko funtsezko helburuak dira.

Eraginkortasuna eta funtzionalitatea bermatzeko, Ekintza Plan berriak hainbat ekimen hartu ditu aintzat, dagoeneko egonkor-tutako kudeaketari balio erantsia eman eta jarduera-ildoak sendotzen dituztenak, ikuspen, garrantzi, sostengu eta bultzada handiagoarekin. Zentzu horretan, proiektu hauek guztiek aurrerapenak dakartzate iraunkortasunari dagokionez, eta tokiko administrazioak duen ereduazko izaera erakustez gainera, herritarren gidari ere badira.

## ***Baliabide gutxien dituzten kolektiboak gizarteratzeko laguntzak***

Udalak laguntzen kontzesioa onartu du, 12.000 euroan; laguntzok irabazi asmorik gabeko erakundeek emango zaizkie, hain zuzen, baliabide gutxien dituzten kolektiboak gizarteratzeko urteko programak edota jarduera sozial zehatzak garatzen dituzten erakundeek.

Deialdi honetan lehiatzeko nahitaezko baldintza da erakunde eskatzailea Muskizkoa izatea, eta erakundearen jarduerak batez ere udalerrian gauzatzea. Diru-laguntza hauetaz baliatuko diren erakundeak zehazteko baremorik ga-

rantzitsuena garatu beharreko jardueren irismen soziala neurtzea da, bai jardueron hartzaile diren kolektibo kopuru eta aniztasunagatik, bai jorratutako helburuen eta baliatutako bitarteko aniztasunagatik.

Sexuaren araberako diskriminazio eza bezalako balioak sustatzen dituzten proiektuak edota kolektibo erdein-tuen gizarteratze-proiektuak garatzen dituzten erakundeak balioesten dira diru-laguntzen kontzesiorako. Gainera, proiektuak, gutxienez, bi urte iraun behar dute.

# 2013rako aurrekontua joan den ekitaldikoa baino %2,1 handiagoa da

## Gastu sozialari bideratutako diru-laguntzak mantentzea eta gastu arrunta murriztea dira helburuak

Udalak 2013rako aurrekontua onartu du, eta joan den ekitaldikoa baino %2,1 handiagoa izango da. Guztira, 444.000 euro baliatu ahal izango dira inbertsioetarako. Udalak dituen helburu nagusiak gastu sozialari bideratutako partidak mantentzea, tasen eta zergen igoera KPIren igoeraren arabera mugatzea, eta baztertu daitezkeen gastu arruntak mugatzea dira.

12.050.000 euroko aurrekontuarekin, kolektibo zaugarriekin, pertsona nagusiak eta egoera erdeinatuan daudenak babesteko sistema baten alde egingo da; era berean, familien ekonomien gaineko presio fiskala mugatuko da, tasak eta zergak KPIren arabera igoz. Aldi berean, Udalak diru-bilketa exekutiboko zerbitzua sustatzea aurreikusi du eta zerga-betebeharrak betetzen ez dituztenak zigortuko ditu.

Muskiz zorrik gabeko udala denez, Udalbatzak 444.000 euro ditu inbertsioetan baliatzeko. Hirigintza eta Lan eta Zerbitzuak Sailak izango dira partida horiek baliatuko dituztenak batez ere; horrenbestez, auzokideak izango dira udalerraren iraunkortasunaren onura eta bizi-kalitatearen onura ekarriko dituzten zerbitzuen eta azpiegituren onuradun nagusienak.

| Oinarrizko zerbitzuak           | 5.165.000 |
|---------------------------------|-----------|
| Herritarren segurtasuna         | 763.000   |
| Kirolegia                       | 1.098.000 |
| Etxez etxeko laguntza           | 520.000   |
| Eguneko zentroa                 | 814.000   |
| Udal eraikinen garbiketa        | 367.000   |
| Kaleen garbiketa, zabor bilketa | 630.000   |
| Zaborren tratamendua            | 210.000   |
| Ur sarea                        | 427.000   |
| Lorategiak mantentzea           | 336.000   |

| Hornidurak         | 696.100 |
|--------------------|---------|
| Telefonoa          | 65.000  |
| Energia elektrikoa | 462.000 |
| Erregaiak          | 169.100 |

| Beste batzuk                                      | 6.314.500 |
|---------------------------------------------------|-----------|
| Larrialdietarako eta Gizarte Premiarako laguntzak | 143.000   |
| Sustapena eta gizarteratzea                       | 213.000   |
| Gazteria / Haurtzaroa                             | 245.000   |
| Ingurumena                                        | 211.000   |
| Ikastetxeak                                       | 178.000   |
| Euskaltegia                                       | 300.000   |
| Forlan (sustapena eta enplegua)                   | 330.000   |
| Behargintza / LHIK (prestakuntza eta enplegua)    | 75.000    |
| Herriko jaiak                                     | 164.000   |
| Kultura eta kirol jarduerak                       | 340.000   |
| Argiztapen publikoa                               | 388.000   |
| Alkatearen soldata gordina                        | 57.000    |
| Funtzionarioen soldata gordina                    | 2.139.600 |
| Gizarte Segurantzak                               | 621.900   |
| Zinegotzien dietak (12 pertsona)                  | 50.000    |
| Alderdi politikoak                                | 15.000    |
| Eraikinen konponketa eta mantenimendua            | 439.000   |



## N-634 errepidean bi semaforo jarri dira, eta, horrela, oinezkoentzako bide berriak sortu ahal izan dira

N-634 errepideko ibilgailuen abiadura murrizteko eta oinezkoentzako bide berriak sortzeko, semaforo berri bi instalatu dira, Kultur Etxearen eta udal kiroldegia artean. Ekimen hau Cendeja eta El Crucero kaleetan semaforizazio berdean aurreikusitako planaren barruan dago.

## La Magdalena auzoko espaloiak eta galtzada berri dira

Ekainean amaitu ziren La Magdalena auzoko espaloiak urbanizatzeke, galtzada asfaltatzeko eta hiri-altzariak lehengoratzeko lanak. 87.000 euroko amaierako aurrekontuarekin, espaloietako 500 metro koadro berri dira, bai eta galtzadako 720 metro koadro ere.





## Bide seguruagoak eskola-umeentzat

Udalak Eskola Mugikortasunerako Plana egitea onartu du, eskola-umeek Muskizko ikastetxeetara joateko erabili ohi dituzten bideak hobetzeko. Ikerketa hau diruz lagunduko du Energiaren Euskal Erakundeak eta ikerketa egiteko aurreikusitako aurrekontuaren %50 eman du.



## Saneamendu sareak Muskizko auzoetan

Udalak Ur Partzuergoari eskatu dio Villanueva, La Rabuda eta La Campa auzoen saneamendu proiektuak idatz ditzan. Udalak 64.000 euro erreserbatu ditu, ekitaldi honetan mota honetako lanak udalerrian gauzatzeko, eta elkargaratutako erakundearen gaineko informazioa behar du, betearazi beharreko lanak zeintzuk diren erabakitzeko.

Proiektu hauek idazteko bukaerako zenbatekoa 15.800 euro ingurukoa da, eta bai elkargaratutako erakundeak bai Muskizko Udalak berdin ordaindutako dute. Sail hauetan aurreikusitako jarduerak, guztira, 10 eraikini emango diete saneamendua.



## Muskiz Done Jakue bidearen etapa gisa sustatuko da

Udalak turismoa sustatzeko ekimen hau onartu du, udalerrria Done Jakue bidearen barruan dagoela aprobetxatuz. Udal ordezkariak 5.000 euro erreserbatu dituzte, eta kopuru hori Muskiz eta bere ingurua erromesen artean ezagutzera emateko baliatuko da. Sustapen turistikoko hainbat jarduera antolatuko dira, besteak beste, sukaldaritzako jardunaldia Pobe-a auzoan, inguruko ostalarien lankidetzarekin. Era berean, informazioa eta iragarkiak sartuko dira Done Jakue bidean espezializatutako aldizkari tematikoetan, bai eta sare sozialetan ere.

Beste alde batetik, maiatzaren 30era, Udalak Pobe-ako ostalua laga dio Done Jakue bideko elkarteak Bizkaian duen ordezkariari, ostatu-emaile boluntarioek artatu, erromesei aterpea eman eta Done Jakue bidearekin erlazionatutako guztiaz aholkatu eta informazioa emateko. Beraz, dohaintzak baino ez ditu onartuko.



## Txirrindularientzako ibilbideak, udalerrri osoa bateratzeko

Udalbatzaren arduradunek baimena eman dute udalerrriak egun dituen bizikletentzako ibilbideen gaineko diagnostikoa egitea ahalbidetuko duen azterketa gauzatzeko. Modu horretan, garraio mota hori erabiltzera bideratutako bidesare bat diseinatzeko irizpideak ezarriko dira, bai hirigunean bai Muskizko gainerako auzoetan.

Proiektu honi esker, jarduera-programa bat proposatu nahi da, eta horiek betearazteko epea 10 urtekoa izango da. Udala baldintza-orri teknikoak eta ekonomikoak idazten ari da proiektu hau lizitazioan ateratzeko. Hasiera batean, 25.000 euro inguruko aurrekontua dauka, eta proiektuaren %50 diruz lagunduko du Energiaren Euskal Erakundeak (EEE).



## **Udalak Zarataren kontrako Ekintza Plana lantzen dihardu**

### **Orain dela gutxi onartu da Zaratak eta Bibrazioak arautzen dituen Ordenantza**

**S**oinu-ingurumenaren hobekuntzarako ekintza-planarekin erlazionatutako lanak orain dela urtebete abiarazi ziren. Gisa horretan, afekzio akustikoei buruzko gune-mapa eta esparru honetan eskumenak dituzten erakundeetako bakoitzak garatu beharreko jarduerak zehazteko beharrezko plangintza hasi ziren. Eta, plan horren barruan, Muskizko Udalbatzak Zaratak eta Bibrazioak arautzen dituen udal Ordenantza onartu du orain dela gutxi.

Ekintza Planak garatu beharreko jarduerak finkatuko ditu, zaraten edo bibra-

zioen bitartez ingurumena eta herritarren osasuna kaltetu ditzaketen jardueren, egoeren edo instalazioen soinu-eragina murrizteko.

Soinu-ingurumena hobetzeko ekintza plan honek, batez ere, kutsadura akustikoko fokuen kudeatzaileen lankidetzak du helburu. Erakunde hauekin izaten diren hasierako harremanetan, zarata errotik desagerrarazi nahi izango da, batez ere, San Julian eta Los Campos auzoetan; izan ere, kalitate akustikoaren helburuak gainditu egiten dira, Petronoren eta udal nahiz foru errepide sarearen ondorioz.



### **San Juan industrialdeko haurrentzako parkeko lanak amaitu dira**

Bi hilabetez lanean aritu ondoren, amaitu da jolasteko gunearen zabalkundea: minusbaliotasunen bat duten umeei egokitutako zabua jarri da, saski itxurako beste bat instalatu da haurtxoentzat, eta egun dagoen erdiko gunean sokak dituen zabua jarri da. Era berean, hodi itxurako txirristak eta igotzeko gune bi jarri dira, haurren parkea mugatzen duten lorategien hegaletan.



### **Hondakinen kudeatzaile gisa eman dugu izena**

Udalak, apirilaren erdialdera, Hondakin Arriskutsuen eta Ez Arriskutsuen Ekoizle Txikien Erregistroan eman zuen izena. Ingurumen kudeaketan eredu bihurtzeko asmoz, Udala lanean ari da Eraispene eta Eraikuntza Hondakinak Kudeatzeko Dekretua bete dadin. Jarduera hauen helburua Integratutako Kudeaketa Sistema finkatzea da.



### **LED teknologia argiztapen publikoan**

Udalak LED motako 16 luminaria instalatu ditu Antonio Trueba eta Ojillo kaleetan; modu horretan, ingurumenari dagokionez eraginkorra den teknologiaren erabilera-aren aldeko apustua egin du argiztapen publikoan. Ekimen honi esker, orduko 8,99 Kw-ko aurrezpena aurreikusi da urte bakoitzeko, eta atmosferara hiru tona CO<sub>2</sub> igortzea saihestuko da. Kontsumo baxuko buru hauek 135 wattekoak dira, sodio-lurrunezko lanpara tradizionalen 250 watten aldean.

# EL KAR RIZ KETA

## Oihartzuna Abesbatza taldekide berrien bila dabil, berritzeko

Errepertorio zabala dauka, eta, bertan, euskal musika korala, habanerak, polifonia sakroa eta profanoa, eta hainbat herritako folklore-piezak dira nabarmentzekoak. Gaur egun, "adin handi samarreko" 38 lagunek osatzen dute Oihartzuna Abesbatza, eta denen pasioa berbera da: musika.

### G/ Nola sortu zen taldea?

E/ 1981eko udaberrian, Muskizko eta Las Carrerasko zenbait ahots misto elkartu ginen, Mu-atonen Abesbatza izenpean. Batez ere, parrokan abesten genuen. Eta, 1987an, gaur egun dugun izenarekin erregistratu ginen.

### G/ Zein lehiaketatan hartzen duzue parte, batez ere?

E/ Modu aktiboan laguntzen dugu Muski-zen musika korala esparruan antolatzen diren ekitaldi guztietan, eta Abesbatzen Bizkaiko Federazioak sustatutako kontzer-



“Ahots mistoko talde honek musika koraleko disko bi grabatu ditu dagoeneko

tuetan parte hartzen dugu (federazioaren barruan gaude). Gainera, Llanesko Habanera Topaketetara joan ohi gara, baita Segoviako Musika Sakroko kontzertuetara eta Orreagako Errege Kolegiatara ere. Horretaz gainera, Castro Urdialesko Koru Zikloetara ere bagoaz.

### G/ Eta zein sarirekin zaudete harroen?

E/ 2006. urtean, hirugarren postua lortu genuen La Felguerako (Asturias) Nazioarteko Lehiaketan, eta bigarren postua "Derrigorrezko abestia" sailean. Baina, era berean, oso pozik gaude argitaratu ditugun disko biek. Azkena, Nire bizitza abesten, 2011ko apirilean argitaratu genuen.

### G/ Zein izango litzakete zuen nahietako bat?

E/ Musikarekiko zaletasuna duen edonork Abesbatzan parte hartzea gustatuko li-

tzaiguke. Badakigu belaunaldi berri batek ordeztu behar gaituela, gu adinean aurrera goaz eta. Beraz, interesa duten guztiak animatzen ditut Kultur Etxean egiten ditugun entseguetara etor daitezen; entseguak as-tearte eta ostegunetan izaten dira, 19:30etik aurrera.

José Antonio García, Oihartzuna Abesbatzaren presidenteak, eskaera maitekor batekin eman dio amaiera elkarrizketari. "Omenaldi berezia egin nahi diogu José Luis Sáez García, 1995az geroztik abesbatzaren zuzendaria izandakoari. Berari esker, emanaldiak biderkatu egin ditugu eta ospe handiko lehiaketetan parte hartu dugu. José Luis Sáez García, zuzendari onenaren saria eman zioten Lora Barri elkarteak antolatutako Portugaleteko Abesbatzen Astea, Muskizko Oihartzuna Abesbatzaren zuzendaria zenean.

## Dunak preserbatzeko Boluntariotzaren Jardunaldia

Ekainaren 15ean, larunbatean, Boluntariotzaren Jardunaldien VI. edizioa izan zen, Areako hondartzako dunak lehengoratzeko. Orain honetan, Udalak eta Lurguia Fundazioak erabaki zuten Muskizko herritarrek izatea batez ere ekosistemako landare inbaditzaileak errotik kentzeko lanetan arituko zirenak; izan ere, Barbadun itsasadarra Europar Batasuneko Garrantzizko Leku (BGL) izendatu eta Natura 2000 Sarean sartu zuten.

Udalak Dunak Lehengoratzeko Programa mantentzea erabaki du; izan ere, ekosistemak jasaten duen degradazioa arintzeko egindako ekintzak oso positiboak izan dira orain arte.



## Muskizek bat egin du Biscaytik-ekin

Udalak bat egin du Biscaytik izeneko foru proiektuarekin, eta, horri esker, Muskizko herritarrek gero eta izapide gehiago egin ahal izango dituzte administrazio elektronikoaren bitartez. Ekimen honekin bat-egitearen ondorioz, Udalaren gaur egungo webgunea formatuz aldatuko da, Aldundiak estandarizatutakora egokitzeko. Horri esker, orain arte garatu gabe zeuden online zerbitzuak emango dira, hala nola, ziurtagirien eskaera edota tasen ordainketa.

Tresna honi esker, herritarren eta Udalaren arteko izapide administratiboak errazteaz gainera, Udalaren barne kudeaketarako beharrezkoak diren baliabi-deak hobetuko dira.